INFRAESTRUCTURAS DE
HIDRÓGENO
DE ESPAÑA

enagas



# Hidrogeno-azpiegituren oinarrizko sare bat Espainian

## 9.1.3 KPI Hidrogenoaren barne-azpiegitura Espainian

Europar Batasunak
batera finantzatua

Proiektuaren informazio-liburuxka

2025eko uztaila

Argitalpen honen edukia Enagásena da, eta ez
du zertan Europar Batasunaren iritzia islatu.

www.infraestructurasdehidrogeno.es

# Aukera bat Espainiarentzat

Hidrogeno-sareak oinarriak ezarriko ditu Espainia Europar Batasuneko hidrogeno berdearen lehen *hub* bihurtzeko, ekonomian eta lurraldean eragin positibo nabarmena izango duena.

**Etorkizun energetiko jasangarriagoa.**
Sarea **funtsezkoa da** industria eta garraio astuna **deskarbonizatzeko**

**Garapen industrial eta teknologikoa.**
Hidrogenoaren industria eta **enpresa-ehun berritzailea** sortzea Espainian

**Hazkundea eta lehiakortasuna.**
**3.310 M €-ko inbertsio** gordina (2024-2030 urteak)

**Enplegua sortzea eta lurraldeak biziberritzea.**
**17.200 lanpostu berri** eraikuntza-fasean eta 900 eragiketan zehar eta mantentze-lanetan

**Hidrogenoaren ekonomiak 32.000 M €-tik gorako BPGa sortuko du Espainian, eta urtero 81.000 lanpostu inguru mantenduko ditu garatu bitartean**

Iturria: "Hidrogenoaren garapenaren inpaktu sozioekonomikoa Espainian" txostena, PWCk Enagásentzat egina (2023)

# Oinarrizko hidrogeno-sarearen lehen ardatzak

Hidrogeno-sarearen garapenak Espainian 5 ardatz ditu, 15 tartetan banatuta, eta Espainiako 13 autonomia-erkidegotatik igaroko dira.

**Platako ibilbidearen ardatza**:
≈ 875 km. Lau tarte:
- Huelva-Mérida
- Mérida-Salamanca
- Salamanca-León
- León-Llanera

**Levanteko ardatza**:
≈ 505 km. Lau tarte:
- Tivissa-Salzadella
- Salzadella-Paterna
- Paterna-Agullent
- Agullent-Cartagena

**Ebroko arana ardatza**:
≈ 535 km. Hiru tarte:
- Haro-Zaragoza
- Zaragoza-Tivissa
- Tivissa-Tarragona-Bartzelonako lantegia

**Kantauri itsasoko ertzaren ardatza**:
≈ 440 km. Hiru tarte:
- Llanera-Reocín
- Reocín-Arrigorriaga
- Arrigorriaga-Haro

**CLMren zeharkako ardatza**:
≈ 235 km. Tarte bat:
- Almendralejo-Puertollano

Azpiegiturak hidrogeno berriztagarria ekoizteko zentroak Espainian identifikatutako eskaera-puntuekin lotuko ditu, eta Iberiar Penintsula Europako gainerako lurraldeekin lotuko du, H2med korridorearen bidez.

## Sarea hedatzeko plana

2024ko azaroan aurkeztutako **4 tarte berri** IKPen 2. deialdia

- Guitiriz-Zamora
- Huelva-Algeciras
- Iparraldeko Ordokiaren zeharkakoa (Zamora-Nafarroa)
- Hegoaldeko goi-ordokiaren zeharkakoa (Puertollano-Madril-Levante)



# Europako finantzazioa duen IKP proiektu bat

Espainiako hidrogeno-sarearen lehen ardatzak Europako **Interes Komuneko Proiektu (IKP)** izendatu ziren Europako Batzordeak 2024ko apirileko hidrogeno-proiektuak.

Europar Batzordearen Klima, Azpiegitura eta Ingurumeneko Europako Agentzia Betearazleak (CINEA) Engásek eskatutako **Connectin Europe Facility (CEF) Energy funtsen % 100a** onartu zuen 2025ekp urtarrilean sarearen lehen ardatz horien azterketa faserako.



**32,5 M€**

**azterketaren 1. faserako** inbertsio europarra

## Proiektuaren egutegia

**2023ko abendua**
Enagás behin-behineko *Hydrogen Transmission Network Operator (HTNO)* izendatzea

**2024ko urtarrila**
Espainiako Parlamentuan Enagás behin-behineko HTNO izendatzeko berrespena

**2024ko apirila**
Hidrogeno-azpiegituren enbor-sarea IKPen behin betiko zerrendan sartzea

**2024ko uztaila**
Ministro Kontseiluaren baimena Enagási IKPak garatzeko

**2024ko azaroa**
IKPen 2. zerrendako hautagaien aurkezpena

**2025eko urtarrila**
CEF funtsak ematea enbor-sarearen lehen ardatzen azterketa-faserako. Hidrogeno-sarearen PPPPa onartzea DGPEM bidez

**1H 2025**
Ingeniaritza-lanen eta ingurumen-azterlanen esleipena

**2025eko apirila**
Partaidetza Publikoko Plan Kontzeptuala (PPPP) abiaraztea

**2025eko apirila - 2026ko iraila**
PPPP autonomia-erkidegoetan hedatzea

**2025-2026**
Ingeniaritzaren garapena, ingurumen-ikasketak eta baimenak

**2026**
Eraikuntzarako CEF funtsen eskaera

**2027**
FID *(Final Investment Decision)*

**2027-2028**
Ekipoak eta materialak erostea

**2028-2030**
Eraikuntza

**2030**
Abiaraztea

# Hidrogeno-sarearen funtsezko azpiegiturak

Bide-sare baten bidezko garraioa da teknologiarik eraginkorrena, ekonomiaren, ingurumenaren eta segurtasunaren ikuspegitik, hidrogeno berdea ekoizpen-puntuetatik kontsumo-puntuetara bideratzeko.

Espainiako hidrogenoaren barne-sarearen lehen ardatzen proiektua lurpeko 15 bide-zati garatzean datza, berriak edo birmoldatuak, 5 ardatzetan multzokatuak. Halaber, gainazaleko instalazioak ditu: konpresio-estazioak eta balbulen posizioak

## Hidrogeno-hodiak

Lurpeko hodien diseinua azpiegitura mota horien nazioarteko estandarretan oinarrituko da, aplikatzekoa den industria-sektorearen indarreko legerian, eta bat etorriko da gaur egun Espainian indarrean dauden erregelamendu eta jarraibide tekniko osagarriekin.

Horrez gain, segurtasun- eta gainbegiratze-sistemak izango ditu, segurtasunez funtzionatzen dutela bermatzeko.





Ezaugarri teknikoak:
• Hodiaren diametroa:
16", 20", 26", 30", 32" (hazbete)

Korrosioaren aurkako
babes-sistema bikoitza.

# Sarearen beste instalazio batzuk

## Balbulen posizioak

Proiektuaren aldez aurreko azterlanen arabera, 110 balbula-posizio berri aurreikusten dira, eta 20 edo 30 km-ra kokatuko dira, zubiaren trazaduraren lerro berean.

Urruneko eragiteko eta kontrolatzeko sistemak izango dituzte, bai eta etengabeko monitorizaziokoak ere, eragiketa segurua bermatzeko.

Posizio horietako bakoitzak kanpoko hornidura elektriko bat beharko du behe-tentsioan, inguruan dagoen puntu batetik.

## Konpresio-estazioak

Hidrogenoaren presioa handitzen duen instalazio bat da, lurralde batetik bestera distantzia luzeetara eraman ahal izateko.

Proiektuaren aldez aurreko azterlanen arabera, hiru konpresio-estazio beharko dira, Coreses (Zamora), Tivissa (Tarragona) eta Villar de Arnedo (Errioxa).

Bost eta zortzi hektarea arteko azalera duten instalazio hesituak dira, eta haien kokapen zehatza baldintza teknikoen zein ingurumen eta gizarte-baldintzen araberakoa izango da, inguruan beste Enagás instalazio batzuk daudela kontuan hartuta.

Funtzionatzeko linea elektriko bat beharko da goi tentsioko hornidura elektrikoa eman ahal izateko.

**Proiektuaren ibilbide alternatiboak**

**Europako Batzordearen gardentasun-plataforma**

**Prozedura-eskuliburua**

## Enagás, hidrogenoa garraiatzeko sarearen behin-behineko kudeatzailea

Konpainia Espainiako gas naturalaren garraio-sareen operadorea eta gas-sistemaren kudeatzaile teknikoa da. Halaber, Espainiako Gobernuak estatuko etorkizuneko hidrogeno-sarearen (HTNO) behin-behineko kudeatzaile izendatu du. 2024ko uztailean, Ministro Kontseiluak Enagás Infraestructuras de Hidrogeno (2022an eratutako filiala) baimendu zuen Europako IKPak garatzeko.




contactanos@infraestructurasdehidrogeno.es

# Partaidetza-prozesu gardena

Espainiako Gobernuaren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Partaidetza Publikorako Plan Kontzeptuala (PPPK) onartu zuen 2025eko urtarrilean 9.1.3 IKPrako. Hidrogenoaren barne-azpiegitura Espainian, Enagásek aurkeztua. Konpainiak tartean dauden autonomia-erkidego guztietan garatuko du, **18 hilabetez**, 2025eko apiriletik 2026ko irailera, gutxi gorabehera.

## Helburuak

Etorkizuneko hidrogeno-sareari buruzko **informazioa gardentasunez ematea** interesa duten guztiei

**Zalantzak argitzea** eta proiektuaren beharra eta onurak **azaltzea**

**Komunitatea inplikatzea** eta prozesuan parte-hartze aktiboa sustatzea

**Inpaktuak aldez aurretik identifikatzea eta arintzea** eta horiek konpontzeko ekintza egokienak bermatzea

**Proiektuaren onarpena hobetzea**, ingurumen-sentsibilitatea eta gizarte-legitimitatea kontuan hartuta, fase goiztiar batetik



## Zertan datza?

Parte-hartze publikoko prozesu honen hedapena web-orri honetan kontsulta daiteke.
**www.infraestructurasdehidrogeno.es.**

Enagásek prozesu horren berri zehaztasunez emango du lurralde osoan zehar alderdi interesdunekin egingo diren jardunaldi parte-hartzaileetan: udalak, elkarteak eta herritarrak.

Hauek dira Enagásek egingo dituen informazio- eta partaidetza-jarduera nagusietako batzuk:

- Web-orria
- Informazio-liburuxka eta laburpen ez-teknikoa
- Jardunaldiak adituekin
- Bilera parte-hartzaileak herritarrekin eta administrazioarekin
- Informazio-puntuen bidezko hedapena (finkoak eta mugikorrak)

## Parte-hartzea zenbakitan

| 13 | 25 | +540 | +50 | ≃ 380 |
|---|---|---|---|---|
| **autonomia-erkidegoak** | **probintziak** | **herriak** | **agintari nazionalak** | **erakundeak eta elkarteak** |

# Konpromisoa ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunarkein

**Hidrogeno berdea % 100 berriztagarria den bektorea da ezinbestekoa klima-aldaketari aurre egiteko eta trantsizio energetikorako.**

Hidrogeno-sarea garatzeko proiektuak **oso ingurumen-inpaktu txikia** izango du, fase guztietan prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarri direlako.

Hasierako azterketetatik lehengoratzera arte, **oreka bat bermatzen da garapen teknologikoaren eta ingurumena zaintzearen artean**.

Sare berriaren

**%80**

inguru lehendik dagoen gas-azpiegituraren trazaduratik igaroko da

**%21**

egungo gasbideak berrerabiltzea



### Eraikuntza-fasea

Aldi baterako inpaktuak gauzatzearen ondorioz, neurri egokiekin arinduko direnak

### Abiaraztea

Gutxieneko inpaktu minimoak instalazioak martxan jartzeko beharrezko probak egitean

### Eragiketa-fasea

Inpaktu txikia konpresio-estazioek eta gainerako instalazio osagarriek emisiorik gabe funtzionatzearen ondorioz sorutakoa, neurriekin arinduko dena

### Eraistea

Aldi baterako inpaktua lurra berreskuratzearen eta ingurumena lehengoratzearen ondorioz

Proiektuaren ondorio positiboak maximizatzeko eta ingurumen-prebentzioa hobetzeko, **prebentzio- eta zuzenketa-neurriak** ezarri dira diseinuaren, eraikuntzaren eta eragiketaren faseetan.

## Prebentzio-neurriak



**Diseinu sinergikoa**
Lehendik dauden azpiegitura-korridoreak aprobetxatzea, espazio natural babestuetan eta ur-ibilguetan eraginik ez izateko.



**Eraikuntza jasangarria**
Lurzoruen, uren, faunaren eta floraren gaineko eragina minimizatzeko eta horien kontserbazioa errazteko makinak, ekipoak eta jarduketak behar bezala mantentzea.

## Neurri zuzentzaileak



**Lurzorua berreskuratzea**
Lurra lehengoratzea, landare-lurraren geruza berrezartzea eta hondakinak kudeatzea.



**Flora eta fauna berreskuratzea**
Kaltetutako landaredia eta tokiko fauna berrezartzera eta berreskuratzera bideratutako jarduerak egitea.



**Enagás Infraestructuras**
**de Hidrógeno, S.L.U.**
Paseo de los Olmos, 19
28005 Madrid

**www.enagas.es**